

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Maiatzak 8  
406. zenb.



## Heriotza ordurako zerbitzua

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KIROLAK: ANDRES CALLEJA  
KULTURA: SEXUALITATEARI BURUZKO ZINE ZIKLOA • GURE ENPRESAK: GOIHATA





# Arrasateko OSASUN GIDA

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10..... 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CRISTINA GARCIA DIA. (Udalaitz Mediku-Zentroa) Ferrerias, 56 behea..... 79 44 22

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1..... 77 14 72

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1..... 77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1..... 79 72 16

## FISIOTERAPIA

- ANTONI ETA MARIA BASTERRETxea ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ..... 77 03 96

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 79 48 77

## MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... 77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ..... 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35..... 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17,1 Ezk..... 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis..... 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7, 1º ..... 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5..... 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B..... 77 12 63

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerias, 56-Behea ..... 79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... 79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENG OA (Bizkarreko minak eta lunbaldiak) Azoka kalea, 4 ..... (Mobila) 989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... 79 20 18

## PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ..... 79 53 63

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... 79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerias, 56..... 79 44 22



# Nafar bihurtu naiz

Ukoak egin ninduen abertzale. Badakit euskal herritar izateak ez duela inongo meriturik. Berez etorri denaz harro egotea txorakeria hutsa da. Itxuraz ederra edo altua —edo nahi dena— den pertsona batek ez du edertasun edo garaiera horretaz harro egoteko motiborik, ez baitu ezer egin ezaugarri horiek izateko.

Ez naiz inoiz harro sentitu euskaldunon Rh-az, edo herri zahar baten partaidea izateaz, edo gure mendien berdeaz edo gure betidaniko topikoez. Baina frankismoan hazitakoa naiz eta gogor sentitu izan dut ukoa. Eta ukorik bortitzena gainera. Ez eskubideak ukatzen dituen, hori gogorra izan arren, izana bera ukatzen duena baizik. Nik etxean erabiltzen nuen hizkuntza, euskara, ez zen existitzen.



Mikel Irizar

Iparraldean nonahi ageri zen ikurrina. Hegoaldean ez zen, besterik gabe. Eta Euskal Herria bera ere izan zitekeen indio txapeldunen erreserba folklorikoa, baina herri antolatu gisa ez zuen izanik.

Ukatze horrek egin ninduen abertzale. Orain, berriz, eraso iritsi da.

Franco hil ondoren, ukatzearena bigundu egin zen halabeharrez eta

euskaldunok urrats batzuk egin ditugu ordudanik. Baina lehengo ukatze baldarraren tokian arrisku berria sortu da, eraso zitala. Edozein aitzakia medio —ETA gehienetan— sekulako erasoak jasotzen dituzte euskarak, ikastolak, nazionalismoak edo

independentziaren aldeko jarrerak. Badirudi Espainiako nazionalismoa oraingoan ez bakarrik borroka armatua baizik eta euskaldunak berak suntsitzekotan dela.

Arrasaten aski ezaguna den Mayor Orejarenak entzutea besterik ez dago.

Luis Martinez Garate nafarrari irakurri diot berriki: “Hezkuntza sistema dela, edo komunikabideak —komunikaziorako baino, propagandarako direnak— edo ordena publikoko indarrak eta armadak, dena bat dator geure buruaren ezagutza eta estima eta Euskal Herriak bere proiektu sozial, ekonomiko eta politikoa pentsatu eta gauzatzeko aukerak ia hutsean egon daitezten”.

(Egin, apirilak 7). Eta aurrerago: “Nafar Estatu bere lurraldetasun osoan berreskuratzea euskal nazioaren berreraikuntzaren ardatz bihurtzeko eguna iritsi da. (...) Nafar Estatu munduko besteen parean jartzea benetako berme bakarra da Euskal Herriak bizirik iraun dezan, eta euskal herritarren ongizatea eta eskubide oinarrikoak gorde daitezten”. Artikulua luzea da, trinkoa eta jantzia. Eta, hala ere, gardena eta argia.

Lehen ukoak egin ninduen abertzale. Orain erasoak bihurtu nau nafar. ■

**“Lehen ukoak egin ninduen abertzale. Orain erasoak bihurtu nau nafar.”**

*“Ormaetxeak dio On Jose Mariak gauza bera egingo zuela beste edonon izan balitz ere. Baliteke, baina ez nago guztiz ziur. Beste hau, berriz, egia da: guk ez genukeela egingo egin genuena bera barik”*

**Alfonso Gorroñoitia**

# 42.372

pta.ko gizarte soldata

Pertsona batek, beste diru sarrerarik ez badu, hilean 42.372 pta jaso ditzake Gipuzkoako Foru Aldunditik, Pobrezia Planaren barruan. Arrasaten 103 familia edo gizabanako ari dira era honetako diru laguntzak jasotzen aurten. Gehienak Makatzenan, Santamainan eta San Andresen bizi diren emakume banatuak edo alargunak dira.

## O H I T U R A K

### Periodikua leituz ilustratzen gara

Ohitura bitxiak ditugu arrasatearrok egunkaria erosteko orduan. Hona hemen batzuk:

- Asteburuetan egunkari gutxiago erosten ditugu lanean egon baino. Asteburuetak gehigarriek asko garestitzen dituzte egunkariak.
- Zenbait jubilatutako goizeko 06:00ak inguruan erosten dute egunkaria, gosaldutako aurretik. Hainbat ezkonberriek ere gauza bera egiten dute. Lanera orduko, irakurria dute kazeta.
- Dagoeneko mondragoetar batzuk hasi dira egunkariak Interneten begiratzen.
- Gazteek egunkari gutxi erosten bide dute.



**ARRASATE KOMUNIKABIDEAK**

**ARRASATE PRESS**

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñate kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readysol.es

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirretxe, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udako Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urbaren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Malide Salnz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzerfatu.** **Inprimatza:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñate).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen adizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuaz egiten da.

**Azala:** Txos Azurmendi



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza



## GUARDIAKO FARMAZIAK

- 7 Osteguna  
 •Egunez: Azcoaga, Ferrerías  
 •Gauéz: Mozos, Bergara
- 8 Ostirala  
 •Egunez: Español, Iturriotz  
 •Gauéz: Camacho, Bergara
- 9 Larunbata  
 •Egunez: Corcuera, Musakola  
 •Gauéz: Puy, Bergara
- 10 Igandea  
 •Egunez: Irizar, Erquin  
 •Gauéz: Puy, Bergara
- 11 Astelehena  
 •Egunez: Amezua, Santa Marina  
 •Gauéz: Guallar, Bergara
- 12 Asteartea  
 •Egunez: Zabala, Santa Marina  
 •Gauéz: Estella, Bergara
- 13 Asteazkena  
 •Egunez: Ruiz, Magdalena  
 •Gauéz: Mozos, Bergara

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00  
 Igoalatorioa . . . 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) . . . 79 39 00  
 (emakumeak) . . . 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
 Bergara . . . 76 55 76
- DYA**  
 Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria . . . 77 03 46  
 • Espezialitateak . . . 77 05 78  
 . . . 77 12 64  
 Oñati . . . 78 08 52  
 Eskoriatza . . . 79 98 58  
 Aretxabaleta . . . 79 74 58  
 Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
 Oñati . . . 78 04 11  
 Bergara . . . 76 14 69  
 Arrasate . . . 79 14 39  
 Aretxabaleta . . . 79 10 52  
 Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**  
 Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
 Udal taldea . . . 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) . . . 12 01 62  
 Gasa . . . 900 40 05 23  
 . . . 79 78 44  
 . . . 79 76 78
- Garraioak**  
 Taxiak . . . 79 12 22  
 PESA . . . 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza . . . 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterron liburutegia**  
 Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**  
 Arrasate Irratia . . . 79 58 77

## ESKERRIK ASKO ESKUALDE OSPITALARI

Leerro hauen bitartez, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Julian Aranzabal zaindu zuten Arrasateko Eskualde Ospitaleko medikuei eta erizainei. Ospitalean egon zen bitartean ezin hobeto zaindu zuten, gaisoak berak askotan aitortu zuen moduan.

Heriotzaren orduan ere, laguntza handia eskaini ziguten. Eskerrik asko, bada, eskaini diguzuen arreta eta zerbitzu onagatik.

*Julian Aranzabal  
zenaren familia*

## SALAKETA ERTZAINZARI

Arrasatekoa naiz eta astero Airakurtzen dut *Arrasate Press*. Horregatik erabaki dut gutun hau idaztea, *Gutunak* sailean argitaratu dezazuen. Izan ere, honen bidez nire haragitan sufritzea tokatu zaizkidan gertakizunen berri eman nahiko nizuke eta aldi berean legea eta ordena defendatzen omen duten horiei erantzun, oraingo honetan behintzat, alderantzizkoa egiten dute eta.

Jarraian kontatuko ditudan gertakizunak Aretxabaletan gertatu ziren, larunbat batez, gazteak dibertitzera bai baina ez gertatu zirenak eragitera iriteten diren egun horietako batean. Ertzaintzaren uniforme daramatenak eredu izan beharko lirateke, bidegabekeriak egiten ibili barik. Baina uste dut uniformeaz aprobetxatuz, oraingo honetan behintzat, legea beren esku hartzeko aprobetxatu dutela.

Horrekin Ertzaintza zikindu baino ez dute egiten. Buruzagiek neurriak hartu behariko lituzkete horrelakorik berriro ere gerta ez dadin, zeren eta hasten bagara denok justizia geure kontura hartzen, zertarako dago epailea?

Kontua da gazte bati gogor eraso ziotela, "ukabildak" emanez eta irainak eginez. Nik ordura arte uste nuen Ertzaintzak legea betetzen zuela, baina kontua da mendean hartzen zaituenean, plakaren zenbakia eskatzen badiezu "miatu egin behar dizugu" erantzuten

dizutela. Ezertarako motiborik aurkitzen ez dutenez, agurtu egiten dira eraso artean. Hau guztia furgoneta bi eta auto patrulla baten inguruan gertatu zen. Azkenean, joan egin ziren ezer gertatu ez balitz bezala.

Espero dezagun epaileak bete dezala bere lana eta jar ditzala eskrupulorik gabeko andra-gizon hauek beren lekuan, bestela Ertzaintzak ez du etorkizunik izango eta. Gizarteak justizia nahi duelako.

A.B.C.  
NAN: 15369059

## Asteburuetak kameralariai

Kameralaria berriak ditugu ATBn asteburuetak. Iban Gonzalez eta Edu Abasolo dira. Biak aretxabaletarrak.

Lehen Bilboko Irrati-telebista Eskolan ikasitakoa da. Edu, berriz, Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan ari da ikasten.

Orain pare bat hila-bete hasi ziren gurean lanean. Larunbatigandean, bada, horixe ikusiko dituzue irudiak hartzen.



*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko arropa**  
 Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 79 81 82

**UGARAN**  
**jatetxea**  
 Garagartza auzoa  
 Tel.: 79 76 58  
 ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
 Industria hornidurak  
 Tel. 71 24 25



# Ezagutzen duzu Ferixalekuko pilotalekuaren proiektua?

Arrasateko Udalak udal pilotalekuaren proiektua aurkeztu zuen aurreko astean.



**Lorenzo Rojas**  
Jubilatua  
(71 urte)

Duela urte batzuk zerbait entzun nuen, baina inguru hartako etxeak jausi zirela eta, pentsatzen nuen alde batera utzita zegoela proiektua.



**Juan Irigoien**  
Jubilatua  
(81 urte)

Ez dut ezagutzen proiektua, baina herrian pilotaleku baten beharra badagoela uste dut.



**Yolanda Sanchez**  
Dendaria  
(33 urte)

Bai, ezagutzen dut. Ongi dago, baina herriak pilotalekua baino beste behar garrantzitsuagoak badituela uste dut.



**Calista Aguado**  
Etxekoandrea  
(55 urte)

Ez dut ezer entzun. Beharra badago, egin dezatela. Nik ez dut iritzi berezirik.



**Fernando Sanz**  
Elektrizista  
(30 urte)

Urte asko daramate proiektu horrekin, baina Arrasaten pilota zirkuiturik ez dugu eta ez dakit benetako beharrik dagoen pilotalekua egiteko.



**Juan Luis Olalde**  
Enplegatua  
(44 urte)

Entzun dut zerbait. Arrasaterako interesgarria dela uste dut. Horrelako pilotaleku bat edukitzea ona da herrirako.



**Alzira Egidazu**  
Musikaria  
(35 urte)

Bai, baina zaharra da proiektua. Ea behingoz egiten duten.



**Juan Lopez**  
Langilea  
(21 urte)

Ezagutzen dut zerbait eta ongi dagoela uste dut. Herri-tar guztiontzat zabaltzen badute, ongi egongo da.

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A

*Ondo ibili nahi duzu?  
Zuri laguntzeko gaude*

- Lanerako eskalapoiak edo zuekoak.
- Bizkarra zaintzeko faja bereziak.
- Hantekarako plantilla bereziak.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 79 08 07

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17



# Arrasate

## LANAK

### SAN FRANTZISKON

Biribila egiten eta gasa sartzen ari dira.

### OTALORA KALEAN

Larunbatean Maalatik Okendorako bidea moztuko da 08:00etatik 15:00etara.

### KONTZEZIÑO AUZOAN


Kolektorea eta urbanizazio lanak. Asfaltatzen.

### TAKOLON

Biribil berria egiten ari dira. Luze joko du.

### URIBE AUZOAN

Larunbatean Aramaiora doan bidea moztuko da.



**Biztanleak: 24.571**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 8**



**LARUNBATA 9**



**IGANDEA 10**

Zeru argiak, nahiz eta goizean gandu izan hant-hemenka. Tenperaturak gora egingo du. Hego haize motela.

Hodeiak tarteka. Iluntzean baliteke zaparradaren bat izatea. Tenperaturak berdin edo hotziz. Hego haize motela.

Zeruak oso lainotuak. Zaparradaxoak, eta hant-hemenka ekaitzak. Tenperaturak behera egingo du. Hego haize motela.

## Ilargia



**ilbetea**

Maiatzaren 12a arte ilgora izango da. Astelehenetik aurrera, berriz, ilargi beteak izango dugu.

## Mezak

### San Frantzisko

(Frantziskotarren elizan Parrokia berri arte)

### Larunbatean

09:00 (elebiduna)

### Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (euskaraz)

11:00 meza nagusia (Erramu bedeinkapena eta prozesioa egingo da.)

12:30 (erdaraz)

19:00 (erdaraz)

### Uribarri

### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

### Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

### San Andres

### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

### Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:00 (erdaraz)

13:00 (erdaraz)

### Santa Teresa

### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

### Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%95,8**



## Distantziak

### Arrasate

121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris



# Sexualitateari buruzko zine zikloa

**Amaia Antzokian gaueko 9:30etan**

**maiatzak 14 (osteguna):**

Beautiful thing

(Hettie MacDonald. Britainia Handia. 1995)

Bi neraberen amodiozko istorioa dugu. Harreman homosexuali buruzko hausnarketa.

**maiatzak 28 (osteguna):**

Persiguiendo a Amy

(Kevin Smith. EEBB. 1996)

Hiru gazteren diskurtsoa, sexu harremanetan izan daitekeen aniztasunari buruz.

**maiatzak 21 (osteguna):**

Lolita

(Adrian Lyne. EEBB. 1996)

Gizonezko heldu bat eta neska gazte baten arteko harremani buruzko filma. Topikoetatik urrunduz, sedukziozko harreman ezberdina planteatzen du.

**ekainak 4 (osteguna):**

El escándalo de Larry Flint

(Milos Forman. EEBB. 1996)

Pornógrafiaren gaia pantailaratzen digu film honek. Zenbait gertakizun sozialen aurrean dugun hipokresia salatzen du



**Antolatzailea:**

Sexualitateari Buruzko Informazio Zerbitzua (Arrasateko Udala)

Garibai Etxeko 1. solairuan  
astelehenetan, 18:00etatik 20:00ak arte  
ostegunetan, 15:30etatik 17:30ak arte  
tel. 79 80 10



ARRASATEKO UDALA



8

ostirala

■ ZINEA

*Torrente, el brazo tonto de la ley*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ MAIATZA DANTZAN

It Dansa Taldea izango da Amaia antzokian ostiralean. *Violeta II, Cómplices, Vía Durga* eta *Jardí Tancat* antzezlanak eskainiko dituzte, Bartzelonako aktore Institutukoek. Saioa, 20:00etan izango da. Sarrera 800 pta.

■ ARRASATE MUSIKALEN EMANALDIA

Aita Menni ospitaleak antolatutako saioen barruan, Arrasate Musikalek emanaldia eskainiko du ospitaleko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 17:00etan.

■ BAKARRIK ESKALATZEN

"Escaladas en solitario" izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du Besaidek. Saioa Monterronen izango da, arratsaldeko 19:00etan.

■ ANTZERKIA

Corazon de Encina elkar-teak eratu duen kultura astearen barruan, "Los marqueses de Matute" antzezlan eskainiko du zentruko "Amener extremeño" antzerki taldeak. Saioa 22:30etan hasiko da.

9

larunbata

■ ZINEA

*Torrente, el brazo tonto de la ley*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ KAIOLAKO GALEPER TIRAKETA

Leintze elkarteak antolatutako kaiolako galeper tiraketa 15:30etatik 20:00etara izango da, San Kristobaleko kanposantuaren ondoan. Goizean, 10:30etatik 13:00etara izango dira entrenamenduak. Parte hartu nahi duten guztiak federatuak izan beharko dute.

■ GAZTETXEAREN VII. URTEURRENA

Eguerdiko 12:00etan hasiko dira Gaztetearen VII. urteurreneko ospakizunak. Eguerdian kalejira antolatu dute. 14:00etan herri bazkaria egingo da Gaztetearen Ondoren bertsoak, txalaparta eta herriko taldeen musika emanaldiak antolatu dira.

Jaia gauera arte luzatuko da eta ezusteko emanaldi bat ere izango da.

■ AMAIA URTIAGAREN EMANALDIA

Aita Mennik antolatutako egitarauaren barruan, Amaia Urriaga sopranoak kontzertua eskainiko du ekitaldi aretoan, arratsaldeko 16:30etan. Pianojolea Alfredo Martinez izango da; azalpenak, berriz, Jose Ramon Artetak emango ditu.

■ EUSKAL HERRIA ETA DINOSAURUAK

Dinosauruen inguruko erakusketa dela eta, "El mundo perdido" bideo emanaldia antolatu dute Monterrongo hitzaldi aretoan. Saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da.

■ HITZALDIA CORAZON DE ENCINA ZENTRUAN

Guillermo Fernandez Extremadurako Ongizate sailburua izango da Corazon de Encina zentruan. Sailburuak, "Extremadura día a día" hitzaldia eskainiko du, arratsaldeko 19:30etan.

10  
igandea

■ ZINEA

*Torrente, el brazo tonto de la ley*, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ RUNBA DANTZALDIA

Corazon de Encina elkar-teak antolatu duen kultura astearen barruan, Tarama taldeak runba dantzaldia eskainiko du arratsaldeko 19:00etan.

■ SAN FELIPE APOSTOL OMENDUZ

San Felipe Apostol elkar-tearen mendeurrena ospatzeko, Arrasate Musikalek kontzertua eskainiko du Monterron parkean. Euria eginez gero, Amaia Antzokian egingo da. Kontzertua 13:00etan izango da. Ondoren bazkaria egingo dute bazkideek.

11

astelehena

■ ZINEA

*Torrente, el brazo tonto de la ley*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

12

asteartea

■ ZINEA

*Torrente, el brazo tonto de la ley*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.



# 13

## asteazkena

### ■ KULTURA ASTEA

Musakola Herri Eskolako kultura astea hasiko da asteazkenean. 10:00etan, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoan saioa izango da. 12:00etan, herri kirolak eta hockey partida eta 18:00etan, Oihulari Klown taldearen antzezlan.

# 14

## osteguna

### ■ KULTURA ASTEA

10:00etan Xake erraldoia egingo dute Musakolako herri eskolan. 11:30etan, Musika eta olerki saioa eskainiko dute, Celiak, Kevinek eta Nuriak. 15:00etan, "Itxasminenez" txotxongilo taldearen saioa antolatu dute.



Larunbatean San Frantzisko Xabier ikastolak ospatuko duen jai gastronomikoa dela eta, Otalora kalea itxi egingo da, zati handi batean.

Hauxe izango da goiz horretarako egitaraua: 09:30etan gurasoentzako gosaria. 11:00etatik aurrera, puzgarriak, Donostiako Club Fortunako taldekoen esgrima erakusketa eta Iker Lezeta trialsin txapeldunaren erakusketa. 11:30etatik aurrera, Andaluzia, Extremadura eta Galiziako Arrasateko elkarte gastronomikoen produktuak, dastatzeko aukera izango da, hemengo jakiekin batera.

### ■ DINOSAURIEN HISTORIA IKUSGAI

"Euskal Herria eta dinosauriak" izeneko erakusketa zabalik dago oraindik Monterronen. Gure herrian bizi izan ziren animalia harrigarri hauei buruzko argazkiak eta xehetasunak ikus daitezke erakusketan. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dago zabalik.

### ■ MAKROFESTA TXITXARRON

Eskola Politeknikoko ikasleek festa handia antolatu dute Txitxarron ikas bidaira joan ahal izateko. Jaia ostiralean izango da, gaueko 23:00etatik aurrera. Autobusak ere ipini dituzte. Arrasateetik gaueko 22:15etan aterako da. Sarrerak, Kajoi Pubean daude salgai.

### ■ 52KO SOLDADUGAIK

1931n jaiotakoek maiatzaren 16an ospatuko dute soldadugai eguna. Kintoak Luis Gutierrez "Guti", Paco Bonet, Angel Dominguez, Julio Marañon edo Rafa Fernandezekin egon daitezke, izenak emateko.

### ■ AEKANPADA

Sakanako Urdiainen izango da aurtengo AEKanpada, maiatzaren 15etik 17ra. Larunbatetik igandera bitartean Maixa eta Itziar, Alaiz eta Maider, Ekon eta Joxe Ripiau, Jon Sarasua eta Maialen Lujanbio izango dira, besteak beste.

### ■ SAN JOANETAKO HORMIRUDI LEHIAKETA

Maiatzaren 22an amaituko da San Joan jaietarako hormirudi lehiaketan parte hartzeko epea. Aurkezten diren hormirudiek lelo hau eraman behar dute derrigorrez: "1998 San Juan jaiak Arrasate" edo "98 San Juan jaiak Arrasate". 100.000 ptako saria dago jokoan.

### ■ I. KOMIKI EZ SEXISTEN LEHIAKETA

Nahi duen guztiak har dezake parte, Arrasateko I. Komiki Ez Sexisten lehiaketan. Lanak aurkezteko epea uztailaren 13an amaituko da. 220.000 pta banatuko dira saritan.

### ■ INSTITUTUAN IZENEMATEA

Arrasate-Aretxabaleta institutuan izenematea zabalik dago, maiatzaren 18ra arte. Berri gehiago, 79 79 00 edo 79 44 47 zerbakietan.

## URRATS

### AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3  
Tel.: 79 87 74  
ARRASATE



## MARKO-JARTZEAK

# ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETA



USTEAK USTE

*Aitaita hil da*

**N**ola esaten zaio Noraindik hiru urte bete barik dituen ume bati bere aitaita hil dela eta ez duela gehiago ikusiko? Egoera horretan geunden gu, aita lurperatu eta gero, joan den astean.

Zuzenean esan genion aitaita hil zela eta ez zuela gehiago ikusiko. "Zergatik?", izan zen lehen galdera. "Ba, oso gaisorik zegoen eta joan egin da, hil". "Nora?", bigarren galdera. Oraingoan gu estu: "Guk ere ez dakigu, laztana, nora joan den. Kontua da ez dugula gure artean izango".

Bazirudien horrekin konforme zegoela, baina handik bi ordura amamarenean bazkaltzen ari ginela, "eta aitaita?", bota zion bat-batean amamari. "Aitaita ez dago, laztana, zerura joan da", amamak. "Orain aitaita Luis eta amama Miren ezagutuko ditu", amak. Eta nik: "San Pedrok zuzentzen duen bandan aitaita Luisek tronpeta joko du eta aitaita Julianek soinua". Oraingoz, esan liteke konforme geratu dela. Ikusi egin behar.

Joxe Aranzabal

## Pertsonalizazioaren bide luzea

Jabier Arregi \*

Orientazio profesionala heziketa eraginkorra osatzen duten ekintzen parte da. Lan jarraitua da, ez etapa bukarako zerbait. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, LOGSEn planteatzen den bezala, osorik da orientatzailea, batxilergoek izan behar duten bezalaxe.

DBHri dagokionez, orientatze prozesuak lau ardatz ditu eta hausnarketa askoz zabalagoa merezi du.

1. Subjektua: Nerabe eta adolozentea. DBH bukatzen duen ikasleak hainbat aukeratzeko esperientzia izan du bere bizitzan eta bizipen horiek bere espazioaren bilaketa edo bere burua ziurtatzeko aukera bezala bizi izan ditu. Baina bi baldintzaztaile sakonen artean beti ere: lehena, bere burua ez ezagutzea. Bigarrena, ingurunea: sozializazio prozesu bizian, bere

gain harrarazi dizkio ohar-kabeen bada ere, gizartearen onarturiko helburuak.

2. Helburua: Nerabea bere proiektuaren bila. Orientatzea aukeratzeko laguntzea da, orientatuaren lekuan jarriz. Nerabeak bere proiektua egin behar du, nahiz eta akatsak izan. Horrela bidera dezake bere proiektua. Beraz, lagundu egin behar zaio, aukerak eskainiz eta ez inposatuz.

3. Agenteak: Gurasoak eta irakasleak proiektuaren zerbitzura Heldutasuna ez da bat-batean lortzen, hamasei urte betetzen diren egunean.

“  
Nerabeak  
bere proiektua  
egin behar du, nahiz eta  
akatsak izan  
”

Irakasgaietako orientatze lana irakaslearen eta tutorearen ardura dira. Ongi trebatua badago, aurkeztuko zaizkion bideen artean aukeratzeko gaitasun handiagoa izango du.

Oso antzekoa da gurasoen lana. Saihestu beharreko bi tentazio izaten dituzte sarritan: gurasoek berek aukeratzeko dutela pentsatzea eta, oharkabean bada ere, beren gurariak seme-alabei transmititzea.

4. Baliabideak: Bi ohitura eta gurari bat. Prestakuntza egokiak gero eta erabaki helduagoak hartzea eraman behar du nerabea. Ongi baino hobeto jakin beharko luke dituen aukerak eta inguruneak zer eskatuko dion. Horrela, bere gaitasunak kontuan hartuta, aukeraketa aproposa egin dezake.

Erabakiak hartzearen hirugarren osagaia geratzen da, borondatea, bere etorkizunaren aurrean kokatzeko: pertsona bezala (nor izan nahi du?), lanbide aldetik (zer izan nahi du?) eta lan arloan (zer egin nahi du?).

5. Ondorioa. Orientatzea oso zeregin profesionala da, gaitasuna, ardura, begirunea eta zerbitzatzeko duenarekin bat etortzea eskatzen baitu.

Azken batean, bere Proiektuaren bila dabilen nerabearentzako zerbitzua da.

\*Lanbide Heziketako Elizbarrutiaren Erakundea

ARRASATE  
HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16  
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 79 46 62





## LEINTZ GATZAGA


### 1 Arrasatearra zauriturik

Astlehenean istripua izan zen Leintz Gatzagan. Opel Vectra markako auto batek aurrez aurre jo zuen Iveco kamioi batekin. Bidean zetorren R-11 markako auto batek beste bien aurka jo zuen. Istripuaren ondorioz, Vectra autoan ziholan emakumea, C.C izeneko Arrasateko bizilaguna, zauriturik eraman zuten ospitale-  
ra.

## BERGARA

### 2 Euskal Bizikleta

Maiatzaren 29an eta 30ean Bergara Euskal Bizikletaren etapa bateko helmuga eta beste bateko irteera puntua izango da. Bigarren etapa arratsaldeko lau t'erdia aldera amaituko da Bergarako pilotalekuaren aurrean, Mendekoste jaiak ospatzen ari direla. Olano, Rijs, Ulrich eta beste asko hantxe izango dira. Maiatzaren 30ean Bergaran abiatuko da, Abadiñon amaitzeko. Hau guztiaren antolatzailea, Lokatza taldea izan da, jende askoren laguntzarekin.



## ARETXABALETA

### 3 Belorietako bidea ekainerako

Errekabarren eta Loramendi auzoak lotuko dituen Belorietako bidea ekainerako zabalduko da ibilgailuentzat. Estu

dabil trafikoa gaur egun. Kurtezbarri eskolatik zehar igaroten den bidea itxita egoten baita egun erdiz. Bide honek herriko goiko eta beheko alderdiak lotuko ditu. Ekainetik aurrera, norabide bakoitzean bide bana izango da. Trafikoa bideratzeko

biribil bat egingo da.

## ELGETA

### 4 Garabi zerbitzua akaso?

Trafiko arazoak konpontze aldera, Elgetako Udalak gogor zigortuko ditu autoa gaizki aparkatzen duten gidariak. Udala bi neurri aztertzen ari da: garabi zerbitzua kontratatzea eta gaizki aparkatuta dauden autoei isuna jarriko dien udaltzaina jartzea.

## ESKORIATZA

### 5 Gellao auzitan

Eskoriatzako Udalak ezetza eman zion Gellao auzoa Aretxabaletaren eskuetara pasatzeari apirilaren 29an egin zuen osoko bilkuran. Egun bat beranduago, Aretxabaletako Udalak onartu egin zuen Gellao Aretxabaletan sartzea. Gellaotarrak aspaldi dabiltza Eskoriatzatik bereiztu eta Aretxabaletan sartu guran, beren bizimodua azken honekin lotuta dagoelako. Halako batean bozketa egin beharko dute beren borondatea azaltzeko. Azken hitza, ordea, Gipuzkoako Foru Aldundiak izango du.

# ERRENTA AITORPENA 97


Informatu. Aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.

 **Zenbaki**

Basabe Industrialdea, C Pab. • ARETXABALETA • Tel.: 943 - 71 21 12 • Faxa: 943 - 71 22 68



Aldez aurretik deitu !

**TELEMATIKA:**

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.





## Euskararen bidean aurrera

“Matrikula itzazu zure seme-alabak etorkizunerako, euskararen bidean aurrera”. Izenburu horrekin informazio kanpaina bati ekingo dio AEDk datorren astean. Kanpaina aurten DBH bukatuko duten ikasleei eta beren gurasoei begira prestatu da.

Ikasleek ikas eredia aukatzen izan ditzaketen kezka argitu nahi ditu AEDk kanpaina honekin. Aldi berean, ikasketak euskaraz jarraitzeko aukera bultzatu nahi dute. Hori dela eta, hitzaldiak eta informazioa zabaltzeko mahaiak antolatu dituzte.

AEDko ordezkariak adierazi digutenez, “Deba Bailarako lan eremuan euskara normalizatzen ari da, eta etorkizunari begira geroz eta garrantzitsuagoa izango da gazteek aukera berdipak izatea; horregatik euskaraz ikasten bultzatu nahi ditugu”.

Maiatzaren 12an egingo duten hitzaldian, prestakuntza eta unibertsitate esparruan zein lan eremuan gazteek euskaraz jarduteko dituzten aukerak azalduko ditu AEDk.

Udaletxeko pleno aretoan izango den hitzaldia euskaraz zein gaztelaniaz egingo da, guraso eta ikasle guztiek azalpenak ulertzeko aukera izan dezaten. Saioa arratsaldeko 18:30etan hasiko da.

Bestalde, eta kanpainaren barruan, maiatzaren 14an eta 15ean, osteguna eta ostirala, mahai ingurua antolatu du AEDk, ikas eredia aukatzean izan daitezkeen kezka kanporatu eta argibideak gertutik jaso ahal izateko.

Bi saioak arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara izango dira, udaletxeko pleno aretoan.

# Aurrejubilatzen aldeko Lege Proposamena Kongresura



Fagorrekoko Kontseilu Sozialaren prentsaurrea, joan den martxoan.

Aurrejubilatzen aldeko lege proposamena Kongresura aurkeztu zuen erresoluzioa aurkeztu zuenean. Erresoluzio horren arabera, 1967. urtea baino lehen Gizarte Segurantzari kotizatu dioten langile autonomo, kooperatibista, etxeko langile, nekazari eta atzerrian lan egindakoei, ezin izango zuten 60 urterekin jubilazioa hartu.

Hau eragozteko, Ezker Batuak Lege Proposamen bat aurkeztuko du Kongresuan. Lege Proposamena onartuz gero, ez legoke inongo arazorik aurrejubilatzen.

Ezker Batuaren lege proposamena aurkeztuta Kongresuan EBko diputatua den Julian Fernandez, etorri zen

asteazkenean Arrasatera.

Ezker Batuaren Lege Proposamena onartzeko, beharrezkoa da partidu politiko guztien aldeko botoa. Apirilaren batean Partidu Popularraren erresoluzioaren aurkako mozioa bozkatu zenean, alderdi guztiek aurrejubilatzen aldeko mozioa onartu zuten. Horregatik, Ezker Batuak itxaropena du berriz ere partidu politikoak honen alde bozkatzeko dutela.

Fagorrekoko Kontseilu Sozialak, bestalde, aurrejubilatzen aldeko neurriak hartuko dituela adierazi du. Aurkeztu duen erresoluzioan partidu politikoak eta sindikatuak aurrejubilatzen aldeko jarrekin hartuta bultzatuko ditu. Horrela bada, Kongresuko partidu politikoak Ezker

Batuaren Lege Proposamenaren alde bozkatu dezaten eskatuko du Kontseilu Sozialak.

Gaurko egunean langilearen batek aurrejubiltzeko eskera eginez gero, ez luke erantzunik jasoko, Ezker Batuaren Lege proposamena eztabaidatu arte ez da jakingo zer egin. Maiatza bukatu ondoren Lege Proposamena aurkeztua egotea espero du Ezker Batuko diputatuak.

Madrilgo Kongresuan Ezker Batuko diputatua den, Julian Fernandez, Arrasaten aurrejubilatzen kontuekin bizi den egoera bertatik bertara ezagutzera etorri zen. Mondragón Kooperatiba Korporazioan Ezker Batuaren lege proposamena aurkeztu zuen, izango duen eragina aztertuz.





**AMAGARA**

**Erdiko Kale, 54 etxabea  
ARRASATE • Tel: 79 09 09**

**Oraindik ere garaiz zabilta  
zure gorputza moldatu  
eta gustura sentitzeko!**

Gure lan teknikak dira gure  
bermea, kosmetika berezia eta  
tresneria aurreratuekin batera.

**Deitu eta hitzordua eskatu.  
Jakinaren gainean jarriko zaitugu,  
bat ere konpromisorik barik!**

# OHOREZKO-MATRIKULA

**gidari onenek merezi dute**

**Zatoz MAPFRE ra**  
**Areagotu  zure hobariak**

**Mapfrenen Ohorezko Matrikula Planarekin, gaur egungo polizaren antzintasuna gorde** ahal izango duzu.

(95-I baino lehenago edozein konpainiatan kontraturiko polizentzat)

Lor itzazu **hobaririk onenak denborarik laburrenean.**

Automobil Aseguruetan dagoen **Lehen** Erakundearen babesarekin.

**3.000.000 ibilgailu baino gehiago** aseguratutik eta **2.400 bulego, bezeroak zaintzeko.**

Asegura ezazu zeure autoa behar bezala.



**MAPFRE MUTUALIDAD**

Ondo gidatu. Seguru ibili.

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 79 89 00

Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 79 71 31



## Antoñako saihesabidea egingo da

Arrasateko Udalak Musakolan saihesbide bat egitea erabaki du. Saihesbideak Antoña eta Santa Teresa kalea lotuko ditu, Institutuaren atzetik. Bideak 250 metro inguru izango ditu.

Musakolako Mojategi, Saburdi, Antoña-Etxebarri eta Arbe baserrietara joateko edo inguru horietan dauden txaboletara sartzeko, gaur egun San Isidro elizatik sartu eta Zubikoa kaletik zehar joaten gara. Dena den, inoiz pentsatzen bada igerilekuak edo kiroldegia Mojategi aldera zabaltzea, moztu egin behar da bide hau.

Hori kontuan hartuta, Arrasateko Udalak bide alternatiboa egitea erabaki du. Antoña baserria zegoen tokitik abiatuko da, gaur egungo pilotalekuen ondotik, eta pilotalekuen eta institutuaren atzealdetik zehar, lotura egingo du Maxuena baserriaren behealdetik, Santa Teresa kalearekin. Justo hantxe bat egingo du Hondarribia kaleari egingo zaion luzapenarekin. Etorkizunean Hondarribia kaleak Santamainako txabolen eremua zeharkatuko du.

Oso bide laburra izango da: 250 metro baino ez ditu izango, baina aldapa handiko lurretan egin behar da. Inoiz mozten bada Zubikoa kaletik datorren bidetxoa, inguruko baserriarrek eta txabolen jabeek, Antoñako saihesbidea erabili behar dute herrira automobilerik edo motorrez joateko. Udalak onartu ditu dagoeneko lanen adjudikazioa prestatzeko klausulak.

# Arrasateko 103 familiak jasotzen dute gizarte soldata

Mondragoeko 103 familia edo gizabanako ari dira jasotzen aurten gizarte soldata. Era honetako soldatak Eusko Jaurlaritzak 1989an onartu zuen Pobrezia Planaren barruan ematen dira.

Arrasateko Udalaren Gizarte Zerbitzuak proposatzen du nork jaso dezakeen gizarte soldata eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaintzen du zuzenean.

### BALDINTZAK

Bi eratako laguntzak aurreikusten dira Pobrezia Planean. Alde batetik gizarte soldata. Hau jaso ahal izateko baldintza batzuk bete behar dira: Euskal Herrian erroldatuta egotea azken hiru urteetan; gutxienez urtebete familiagandik aparte bizitzea; eta 25 urte izatea (18 urte, seme-alabaren bat izanez gero). 65 urte baino gehiago dituztenak ez dira plan honetan sartzen, beste batzuetan baizik. Diru laguntza hauek, noski jatekoa ziurtatzeko dira. Pertsona

batek, beste diru sarrerarik ez badu, 42.372 pta jasoko ditu hilean.

Bigarren laguntza mota larrialdiko laguntzak dira. Hauek bestelako gastuak ordaintzeko erabiltzen dira: etxebizitza, mantenua, dentista... Laguntza hau jaso ahal izateko, 18 urte izan behar dira eta herrian 6 hilabete erroldatuta eramatea. Gehienez jota, bietatik pertsona batek 889.812 pta jaso ditzake urtean.

### JENDE MOTA

Nolakoak dira laguntza hauek jasotzen dituzten arrasatearrak? Gehienak emakumeak dira, nolabaiteko karga familiarra duten emakume banatuak edo alargunak. Baita aita 45 urte ingurukoa eta lanik gabe duten familiak ere. Azken bi urteotan, berriz, ugaltzen ari dira pertsona bakarren eskariak.

Jatorriari begiratu gero, eskatzaile gehienak Makaitzenan, Santamañan eta San


Andresen bizi dira.

Datorren urtean Pobrezia Planak hamar urte beteiko ditu. Aldi honetan, argi ikusten da Arrasaten behintzat, diru laguntza gehien krisi ekonomikoa bere gogorrean egon den urteetan eman behar izan direla: 1994an eta 95ean, alegia. 96tik aurrera dexente jaitsi dira eskatzaileak. Udalaren Gizarte Zerbitzuko teknikarien iritziz, argi dago kooperatiben eragina: kooperatibak ondo doazenean, diru laguntza hauek jasotzeko premia dexente jaisten da.

Diru laguntza hauek jasotzeko eskaera gehienak urte hasieran egiten dira. Horregatik, udal teknikariek ez dute espero aurtengo kopurua asko jasotzea. Egoerak hobera eginda ere, batzuek segituko dute Pobrezia Planaren barruan bizitzen, egoera ekonomiko larriaz aparte, bestelako arazoak dituztelako, osasun arazoak, batez ere.

### Pobrezia plana Arrasaten

Gizarte soldata jaso duten mondragoetarrak





astea bi hitzetan

■ **SOS Arrazakeriaren txostena**

Arrasateko bi ijito familia miseria gorrian bizi dira. Herrian bizitzeko asmoa dutela eta, aspaldi egin zioten udalari hemengo erroldan sartuak izateko eskaera. Udalak, baina, ez die erantzunik eman. SOS Arrazakeriak familia hauen aldeko txostena kaleratu du, herriko erroldan sartuak izateko duten eskubidea aldarrikatuz. Dagoeneko, herriko 30 erakundek sinatu dute txostena.

■ **Kultura Asteak**

San Frantzisko Xabier Ikastolak eta Corazón de Encina, extremeñoen elkarteak, kultura asteak antolatu dituzte. Ikastolan "Gure gastronomia kultura asteko mamia" izan da leloa. Gastronomiari eskaini dio aurtengo kultura astea San Frantzisko Xabier ikastolak. Herri eta kultura ezberdinetako janak ezagutzeko aukera izan dute. Corazón de Encinakoek, beren aldetik dantzaldiak, antzerkia eta

erakusketak antolatu dituzte VIII. kultura aste honetan.

■ **Mendi Astea**

Munduko mendi tontorrak eta mendiaren inguruko kontuak ezagutzeko aukera egon da Besaidek antolatutako Mendi Astean. Diapositiba emanaldiak eta hitzaldiak izan dira astean zehar. Txoko ugari ezagutu ahal izan dira: Pirinioak, Manaslu eta Mckinley mendiak, besteak beste.



“Orain hilabete jarri ginen lanean, euroaren eragina neurtuko zuen batzordea sortuz. Batzordeak zehaztu egin behar du euroak zenbaterainoko eragina izango duen gudan eta enpresaren zein ataletan izan dezakeen eraginik handiena. Esanak esan, diagnostikoa egitea da gauzarik zailena. Azkenean erabaki dugu hiru batzorde izatea, eragin handiena jasotzen duten atalen arabera. Hauek dira: Marketinga eta Komertziala, Erosketak, Sistemak eta Fakturazioa.

Prezio garrantzitsua erabatekoa izango da eta katalogoak era aldatu egin beharko dira. Zenbait produktutan prezioen estrategia aldatu beharko da eta beste zenbaitetan, produktua bera ere bai. Plaza aldatu egingo da zerbait, baina guk orain arte bezala segituko dugu lanean”.

**FERNANDO GOMEZ (FAGOR)**

DV, 1998ko maiatzaren 3an.



**EHOZIRI-LANEN III. TOPAGUNEA**

Aurreko igandean Donostian ehoziri-lanak (encaje de bolillos) ikusi eta egiteko aukera izan zen, langintza honen inguruko topagunea egin zen eta. Arrasatek eta Bergaratik 17 emakumek hartu zuten parte, eta opari eta guzti bueltatu ziren etxera.



**LOGOPEDIA ZENTRUA**  
ARRASATE

HIZKUNTZA ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE



**BITTORI**  
**ERRETEGIA**

*Eguneko menua • Kartako menua*  
**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82

**AMI OINETAKOAK**

**oinetako autozerbitzua**  
Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65





## GURE ENBAXADOREAK

Arrasateko Emakume Mus taldea Segoviara joan zen duela bi asteburu, hango mus eskolara bisita egitera. Jakina! Musean jolakatu zuten segoviarren aurka. Eraitza berdinketa izan zen. Hamazazpi mus jokalariek eta Roman Lopez irakasleak musean jokatzeaz gain, turismo egiteko ere aprobetxatu zuten.

## AUPA PLAENTXI!

Arrasaten bizi diren plazentziarrek herrimina sentitzen dutela eta, Danok Bat elkarrean bildu ziren elkarrekin bazkaltzera. Herriko txutxu-mutxu eta gorabeherak kontatzeaz gain, primerako giroa izan zuten.



**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 79 13 78

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



**Danona**  
KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 58 06



Naturaren beste kapritxo bat!  
Agarre baserrian, Aramaion, Boni-  
ta izeneko behiak hiru txahal izan  
zitu. Txahalak pisu gutxirekin

jaioren, baina primeran daude.  
Bonita behia Aramaioko behirik  
bereziarena da: 6 erditzetan 11 txah-  
hal izan ditu!



## HIRU TXAHAL BATERA

Toki Argi jubilatuen etxean karta  
txapelketak jokatu dituzte. Muse-  
an, briskan, tutean eta kuartolan  
azkarrena nor izan-

go aritu dira. Argazkikoak kopa eta  
txapela gainean bueltatu ziren etxe-  
ra. Pozik, aurtengo irabazleak dira  
eta.



## IRABAZI DUGU!



## FORMULAKO TXIKIAK

San Andres jaietan  
zaletasun bitxi baten  
inguruan bildu zen jendea.  
Autotelegidatuak gogoko  
dituztenek auto txiki  
hauek hartu eta hor aritu  
ziren San Andreseko  
kaleetan lasterketak  
egiten. Jende ugari bildu  
zen autoak ikustera.



## GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA DEBA GARAICO AEK-n

**Matrikulazio epea:** maiatzak 11-29

**Baldintza:** EGA duna izatea

**Berri gehiago:** ERDU AEK euskaltegian edo 77 03 69 telefonoan

PLAZA  
MUGATUAK



# San Felipe Apostol: anaidia iz

“Zer egingo dugu ba? Hil arte bizi”. Esaldi honek bizitzaren ikuskera bat adierazten du. Bizitzarena eta heriotzarena. Azken hau beti izaten da gogorra eta latza hildakoaren familiarentzat. Horregatik, duela ehun urte, mondragoetar batzuek elkarte bat sortzea erabaki zuten, heriotzaren orduan elkarri laguntzeko, San Felipe Apostol.

**A**naidi edo kofradia moduan eratu zen. Irabaz asmorik gabe, beraz. Helburu bakarra zuen: bizitzako une garrantz horietan batzuek besteei laguntza eskaintzea. Bai laguntza ekonomikoa eta baita animoak ere. Dagoeneko ehun urte igaro dira eta oraindik ere indarrean dago. Gauzak dexente aldatu dira elkartearen. Gizartearekin batera, eraldatuz joan da, jakina. Galdu egin du anaidi kutsua eta zerbitzu elkarte bilakatu da.

Baina zer zen eta zer da San Felipe Apostol? Mende hasieran Mondragoek hiru mila biztanle pasatxo zituen. Herri txikia, hortaz. Guztiek ezagutzen zuten elkar. Hainbat herritarrek anaidi bat sortzea erabaki zuten, hil berrien familiartekoei gauzak errazteko asmoarekin. Garai hartan, urtean bost pezetako ordain saria ematen zuten familia bakoitzak. Horren truke, hildakoren bat gertatzen zenean, bazkide guztiek laguntza ematen zioten hildakoaren sendiari. Urte haietan bazkideek betebeharrak izaten zituzten. Norbait hiltzen zenean, hileta elizkizunetara joa-



Elkarteak 1969. urten erosi zuen lehenengo autoa. Seat 1500 bat izan zen.

tea derrigorrezkoa zen. Bazkideren batek piper eginez gero, isuna ordaindu behar izaten zuen. Elizkizunetara nor joaten zen eta nor ez kontrolatzea erraza zen: 60. hamarkada arte hildakoak oinez eramaten baitziren elizara. Beraz, bazkide guztiek laguntzen zioten zenduari.

## BERRIKUNTZAK

1969. urtean erosi zuen San Felipe Apostol elkarteak lehenengo autoa, Seat 1500 bat. Erosketa honek aldaketa ugari ekarri zituen. Ohiturak atzean uzten hasi ziren: geroz eta jende gutxiago hasi zen joaten hildakoaren atzean elizarraino eta bazkideen betebe-

harrak ere galduz joan ziren. Mondragoe hazten ari zen izugarri urte haietan. 1970.ean San Felipe Apostolek zazpi mila bazkide zituen, urtean 62 pezetako ordain saria ordaintzen zutenak. Gaur egun 11.000 bazkide ditu.

Bazkideen batzarrak oraindik ere Aita Gurearekin hasten dira, baina era horretako ohiturak galduz joan dira San Felipe Apostolen. Gaur egun anaidia baino gehiago zerbitzu elkarte da, baina oraindik ere irabaz asmorik gabekoa. Hala ere, tinko eusten dio elkartearen filosofia nagusiari, elkarlaguntzari alegia.

Bazkideek urtean 3.000 pezeta inguru ordaindu behar izaten dute. Horren truke, baten bat hiltzen denean, bazkidearen familia hildakoa lurperatu aurreko betebe-

## Zerbitzuak

San Felipe Apostol elkarteak honako zerbitzu hauek estaltzen ditu bazkide bat hiltzen denean:

- Gorpuaren lekualdatzea EAE eta Nafarroa barruan.
- Hilkutxa.
- Eskelak herrian jartzea.
- Hila jantzi.
- Heriotza agiria bideratu auzitegian
- Elizkizunen gastuak.
- 45.000 pta.ko dirulaguntza hildako bakoitzeko.
- Heriotza Euskal Herritik kanpo gertatzen denean, estaltzen dituen gastuak 600.000 pta.koak izan litezke, behar diren ziurtagiriak aurkeztu eta gero.



# Metrik zerbitzu elkarteak izatera



Jose Luis Iñarra parrokoak bedeinkatu zituen lehengo autoa eta garajea.


rrak eginak ditu. Telefono dei bat egin, eta Alberto Ojangueren eta Kontxi Bedia maioralak arduratuko dira guztiaz. Hildakoa jantzi, elizara eraman, eskelak jarri... hildakoa lurperatu bitarteko eginbeharrak garrantzitsuenak.

Elkarteko lehendakariak, Angel Arregik, bazkide izatearen abantailarik handiena zein den azpimarratzen du: "Une latz horietan ez duzu ezertaz arduratu beharrik. Telefono dei bat egin, eta dena prest dago: hil kutxa, meza... Horrelako momentu batean, niretzat, hau da bezeroak jaso dezakeen lasaitasunik handiena".

Elkartek 45.000 pezeta-ko dirulaguntza ematen du hildakoarengatik. Sendiak diru hori nahi duen bezala erabil dezake. Batzuek egunkarietan edo irratan eskelak jartzen gastatuko dute, besteek errausketa egiten, esate baterako. Norberaren esku dago zertan erabili. Heriotza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora gertatuz gero, erakundeak 600.000 pezeta-ko dirulaguntza ematen du, gorpua Arrasatera ekartzeko.

Ehun urte bete ditu eta luze iraun lezake San Felipe Apostol elkarteak. Esaerak badio: "sortzen denak, bizitza zor". Horregatik eta gauzak erabat aldatzen ez badira behintzat, esan liteke hiletak oraindik ere urte luzeetan egingo direla. Eta hildakoen familiek beti behar izango dutela nolabaiteko laguntza. San Felipen, beraz, has daitezke 200. urteurrena prestatzen.

## Elkarteko bazkideak, adinen arabera



Hogeita hamar urte bete aurretik, urruti ikusten da heriotza.

Naiara Gorroño



# GoiHata: Japoniarekin lan egiten duen itzulpen agentzia

*GoiHata Itzulpenak eta Aholkularitza.* Hori dio Jon Goikolea mondragoetarrak eta Chieko Hata japoniarrak 1994an sortu zuten enpresaren txartelak. Enpresak bi zutabe ditu: itzulpengintzari lotua bata eta Holandako makina lanabeseko enpresa handi batekin duten elkarkidetza bestea.

Ez dute tuki handirik behar Alfontso X. Jakintsua kalean duten bulegoan. Izan ere, bulegoa Jonen eta Chiekoen etxean baitago. Hala ere, ez dauke mundutik aparte: lau ordenadore daukate, telefonoa, faxa, lotura Internetekin, bi eskaner, hainbat inprimagailu eta nik dakita zenbat tresna, denak ere komunikatzeko balio dutenak.

Dena orain urte batzuk hasi zen, Jon Japonian zegoela. Han zortzi urte eta erdi egin zituen, gobernuarentzat lanean, Hirugarren Mundura zihoazen borondatezko oinarriko gaztelania irakasten. Hantxe ezagutu zuen Chieko,



Jon Goikolea eta Chieko Hata, beren bulegoan.

sekulako bidaiak egin zituzten biek eta halako batean hona etortzea erabaki zuten.

Denboraldi bat igaro eta gero, GoiHata sortu zuten: Goikolea-Hata deituz har-tutako izena. Japonierazko itzulpenak egiten hasi ziren. Gaur egun, japonieraz batera, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz lan egiten dute. Horrekin batera, itzulpen hutsak

balio erantsi eskasa duela iritzirik, itzulitako lanak ondo eta dotore maketatzeari ekin diote. Horri esker, lan gehiago hasi dira jasotzen. Itzulpen lanez gain, interpretaritzana ere egiten dute, aldibereko itzulpena eginez, kongresu eta lan bileretan esate baterako. Oraindik orain hogeitun egun igaro dituzte Japonian, Gasteizko Mercedes enpresak eramanda.

Aitortzen dutenez, maketazioak ematen die lan gehien, baina diru gehien interpretaritzatik datorkie.

Lan honek gorabehera handiak dituela aitortzen badute ere, gaur egun polito egiten bide dute lan: Kantabria eta Extremadurako gobernuak, Donostiako Udala eta beste erakunde asko dituzte bezeroen artean. Baita Mercedes eta Fagor bezalako enpresa pribatuak ere.

Horietaz aparte, hainbat gestio egiten dute hemengo enpresentzat, hauek edozer gauza erosi nahi dutenean Japonian edo Ekialdean. Elgetako enpresa batek, adibidez, GoiHatako zerbitzuak kontratatu zituen Japonian hainbat material erosteko eta ekartzeko.

Laster zerbitzu berria eskaintzen hasiko dira: nahi duten erakunde eta enpresentzat webguneak sortuko dituzte japonieraz edo beste hizkuntza batean.

## IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11  
ARRASATE

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
5etatik 8etara.  
Tel.: 79 26 99

**“PAL”**  
burdindegia,  
brikolagea  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 79 31 99 ARRASATE


**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta**  
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792944



# Fagorrek 9.000 banatzaile bildu ditu hilabetean


Martxoaren 27tik apirilaren 30era bitartean, Fagorrek 70 aurkezpen egin zituen bere banatzaileen artean, produktu berriak ezagutarazteko. Denbora horretan gutzira 9.000 banatzaile bildu zituen Arrasateko enpresak. Aurkezpen hauetan Fagor eta Edesa marketako produktu berrienak aurkeztu ziren: labak, kanpaiak, mikrouhin labeak, hozkailuak eta aire girotua.

Aurkezpen horiek egiteko, Fagorrek laupabost lagunez osatutako hiru talde antolatu zituen. Horrela, egunero hiru aurkezpen egiten ziren beste horrenbeste hiriburutan. Kanpainaren egunik garrantzitsuenak Bilbon egin zen apirilaren 7an, Guggenheim museoan.

Azken hiru urte hauetan Fagorrek beste modu bat erabili zuen banatzaileekin

harremanetan jartzeko: satelite bidezko telekonferentzia. Aurten, aldiz, alde batera utzi du Orbita programa eta banatzaileekiko harreman zuzena bilatu du.

Aurtengoan izan duten erantzuna ikusita, datozen urteetan ere, antzeko sistema erabiliko dute aurkezpenak egiteko. Izan ere, konturatu dira banatzaileek izugarri eskertu dutela harreman zuzena.



Fagor eta Edesa marka duten produktu berriak aurkeztu ziren.

## Euroa

### Noiztik agertuko zaizkigu erosgaiak pezetatan eta eurotan?

Etiketajeari buruz oraindik ezer ez dago erabakita, baina badakigu 2002ko urtariletik aurrera erosgaien eta zerbitzuen prezioak pezetatan eta eurotan adieraziko direla. Hala ere, gure artean Ibaiartek eta Eroskik, esate baterako, hainbat kanpaina egiten dituzte erosgaien salneurriak pezetatan eta eurotan azalduz. Horrelako ahaleginak geroz eta ugariagoak izango dira, erosleok eurotan pentsatzen ohitzen joan gaitezten. Etxean jasotzen ditugun katalogoek errazago izango dute prezioak era bietara erakustea.

**Euro baten balioa**

**167,5 PTA**

## AED LEHIAKETA

### GALDERAK

- 1.- Noiz sortu zen AED?
- 2.- Nori zuzendutako ekintzak burutzen ditu EKINEK?
- 3.- Zenbatgarren Arrasate Press izan da martxoaren 18koa?
- 4.- Ze urtetako udalekuetan ibili ziren TXATXILIPURDIKO haurrak txapel horiekin?

### SARIAK:

Bi sarrera **Amets Gaurako** (Maiatzaren 23an ospatuko den festa erraldoia)  
Erantzunak AEDko egoitzan bertan jasoko dira (Pablo Uranga, 4 - Behea).



### ERANTZUNAK

1. \_\_\_\_\_
2. \_\_\_\_\_
3. \_\_\_\_\_
4. \_\_\_\_\_

Izena: \_\_\_\_\_  
Abizena: \_\_\_\_\_  
Telefonoa: \_\_\_\_\_



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	1	1	0	0	9	6	2
Fraguel Gol	1	1	0	0	4	3	2
Ac Surkos	1	0	0	1	3	4	0
Branka Taberna	1	0	0	1	6	9	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	1	1	0	0	8	1	2
Bar Estrella	1	1	0	0	3	1	2
Garage Oskar	1	0	0	1	1	3	0
Jotakabau	1	0	0	1	1	8	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	1	1	0	0	10	4	2
Lorategi Potroak	1	0	1	0	3	3	1
Aurrera Bolie	1	0	1	0	3	3	1
Pepelus	1	0	0	1	4	10	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aldibi	1	1	0	0	6	2	2
Koka Juniors	1	1	0	0	6	2	2
Sokoakoak	1	0	0	1	2	6	0
Los Heredia	1	0	0	1	2	6	0

## Emaitzak

### A Taldea

Naranja Mec. 9 - Branka Tab. 6  
Ac Surkos 3 - Fraguel Gol 4

### B Taldea

Argi Ibili 8 - Jotakabau 1  
Garaje Oscar 1 - Bar Estrella 3

### D Taldea

Irati STS 10 - Pepelus 4  
Lora.i Potroak 3 - Aurre. Bol. 3

### E Taldea

Aldibi 6 - Los Heredia 2  
Sokoakoak 2 - Koka Juniors 6

## Hurrengoak

### Zaldibar

#### Maiatzak 9, larunbata

11:00 Garaje Oskar - Jotaka.  
12:00 Sokoakoak - Los Heredia  
14:00 Aldibi - Koka Juniors  
17:00 Irati STS - Aurrera Bolie  
18:00 Naranja Mec. - Frague.  
19:00 AC Surk. - Branka Tab.

#### Maiatzak 10, Igandea

11:00 Lorategi. - Pepelus  
12:00 Argi Ibili - Bat Estrella

# Uribe auzoa txapelketa

## Emaitzak

### 8. jardunaldia

#### Iturripe A

Bar Nuevo 3 - Babajana Sexy 1  
Sporting de Trompetas 0 - Elvis Team 1  
Milan Tocao 6 - Rotor De Bobogrado 4  
Trotabares 0 - Zigarrolako MutilZarrak 1  
Piernodoiuna Sath. 1 - Komando Alp. 7  
DKB 1 - Dribling 0

#### Iturripe B

Potosorri 3 - Cartonajes Igamo 3  
Mr Magoo 1 - Fraguel Gol 0  
Medio Grano 2 - La Ostra Azul 2  
Kamasutra 5 - Balon Rojo 4  
Lontxo Taberna 1 - Leya TMT 0  
Spoting 0 - Xhaasss... 8

#### D taldea

Astoen Villa 1 - Akta 0  
Rex 22 1 - Txotx 1  
Bortxitxak 5 - Doble Cero 1  
Penering Lapsus 0 - Borrock & Roll 1  
Munar Txiki 4 - Decadencia 5  
Blind 6 - Hilarion Jatetxea 5

#### E taldea

Felpudo Maldito 6 - Argi Plastic 8  
P3000 1 - Chuleton Rovers 0  
Mendizabal P de P 3 - Milagro de Bau. 6  
Alai Gozokiak 0 - Racing Molotov 1  
Itxaro Pena Ainarexia 8 - Kalandrax 2

### 9. jardunaldia

#### A taldea

Elvis Team 9 - Rotor de Bobogrado 2  
Babajana 3 - Zigarrolako Mutilzarrak 7  
Bar Nuevo 6 - Dribling 5  
Sporting de Tronp. 0 - Piernoioduna Sath. 1  
Milan Tokao 3 - DBK 5  
Trotabares 0 - Komando Alpargat 1

#### B taldea

Fraguel Gol 0 - La Ostra Azul 1  
Cartonajes Igamo 9 - Balon Rojo 4  
Potosorri 1 - Xhaasss... 11  
Mr Magoo 1 - Lontxo Taberna 12  
Medio Grano 7 - Spoting 2  
Kamasutra 1 - Leya TMT 0

#### D taldea

Txotx 1 - Doble Cero 1  
Akta 0 - Borrock & Roll 1  
Astoen Villa 6 - Hilarion Jatetxea 2  
Rex 22 4 - Munar Txiki 5  
Bortxitxak 4 - Blind 3  
Penering Lapsus 0 - Decadencia 1

#### E taldea

El Milagro de Bautista 1 - Chuleton Rov.0  
Felpudo Maldito 4 - Kalandrax 5  
P 3000 1 - Alai Gozokiak 0  
Mendizabal P de P 2 - Itxaro Pena Ainar. 2  
Ac Massive 4 - Racing Molotov 7

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia  
Tel.: 71 20 02

## Hurrengo partidak

### Maiatzak 9

#### Iturripe A

10:00 Itxaro Pena Ainarexia- P 3000  
11:00 Cartonajes Igamos - Xhaass  
12:00 Elvis Team - Zigorrolako Mutilzarrak  
13:00 El Milagro de Bau. - Racing Molotov  
14:00 Doble Cero - Decadencia  
15:00 Rotor de Bobogrado - Komando Alp.  
16:00 Argi Plastic - Kalandrax  
17:00 Potosorri - Lontxo Taberna  
18:00 Txotx - Borrock & Roll  
19:00 Babajana Sexy - Dribling

#### Iturripe B

14:00 Mendizabal P de P  
15:00 Piernodoiuna Sathellites - Bar Nuevo  
16:00 Mr Magoo - Spoting  
17:00 Astoen Villa - Munar Txiki  
18:00 Medio Grano - Kamasutra  
19:00 Rex 22 - Blind





# MENDIOLA



## Orain askoz gehiago



**LAND CRUISER**

**Mota guztietako autoak, lurrerotakoa eta turismoak**



**RAV4**



**CELICA**



**AVENSIS**



**ACCORD**



**CR-V**



**CIVIC** 5 ate

**Kontsumo bajeenak  
4 urtetako bermea (km toperik gabe)  
Honda 1: Lurrerotakoa**

## Zatoz gure erakusketara

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE  
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 77 16 25 / 79 00 11



Haur mailako jokalaria

## EGOITZ URIBARREN

*"Aurrean jokatzea dut gusturago"*

— **Noiz hasi zinen pilotan jokatzeko?**

— Orain dela asko hasi nintzen, zazpi bat urte gutxi gorabehera.

— **Nolatan hautatu zenuen pilota?**

— Futboleko jende asko aritzen delako eta ikusiegia dagoelako. Pilota, berriz, ez.

— **Kasu gutxi egiten zaio pilotari?**

— Agian orain jende gehiagok ikusten du. Telebistan ere gertatzen dute, nahiz eta astean behin bakarrik izan. Hala ere, bada pilota atsegin duenik. Hauek etortzen dira partidak ikustera. Batez ere finalak ikustera etortzen da jendea.

— **Pilotalekua egin beharra ikusten duzu?**

— Frontoi honetan ura sartzen da eta nahiko gaizki aritzen gara; ea pilotaleku berria egiten duten!

— **Zein da zure pilotari gustukoena?**

— Titin eta Retegi. Biak dira onak, agian Retegi izango da hobea, baina biak gustatzen zaizkit.

— **Aurrean edo atzelari aritzea nahiago duzu?**

— Aurrean jokatzeko atseginago. Binaka jokatzeko dugunean ere nahiago izaten dut aurrean jokatu.

— **Herri arteko txapelketa jokatzeko ari zara?**


— Kadete mailan ari naiz. Datorren astean Donostiaren aurka arituko gara. Zihur onak direla.

— **Zein motatako pilota duzu gustukoena?**


— Arina agian. Tamaina hartzen badiozu, erraza da, baina hartu arte...

— **Zenbat pilotari ari zarete haur mailan?**

— Gaur egun zazpi edo zortzi.



## ATLETISMOA Sei domina Anoetan



Arrasate Kirolak

Atletiko taldeak sei domina ekarri zituen asteburuan Anoetan izan zen Gipuzkoako txapelketa. Disko jaurtiketan, Iban Martinezek Gipuzkoako eta Euskal Herriko urrezko dominak lortu zituen, 31,10 m.ko jaurtiketa egin eta gero. Pisu jaurtiketan, Anartz Azkarra Gipuzkoako 2. eta Euskal Herriko 3. izan zen Anartzek, 10,47 m.ko jaurtiketa egin zuen.

100 m.ko lasterketan Remi Diosdado laugarrena izan zen. 800ekoan, berriz, zilarra lortu zuen Oliver Fernandezek. Ivan Juezek, brontzea ekarri zuen Arrasatera, 1.500 m.koan.

Donibane Lohitzunen egin ziren Pirinioetako jokoetan, Unai Sarabia eta Oskar Gavilan arrasatearrak izan ziren Gipuzkoako taldean. Biek bigarren tokiak lortu zuten, Sarabiak 100 m.ko lasterketan eta Gabilanek disko jaurtiketan.

## TXIRRINDULARITZA Fagorreko gazteak aurrera



Lazkao XXII.

Mendi Proban izan ziren Fagor taldeko gazteak joan den larunbatean. Berrogei bat txirrindulari sartu ziren elkarrekin helmugan eta Asier Atxa arrasatearrak 15. tokiak lortu zuen. Bere atzetik, 20. lekuan, Ivan Velasco sartu zen. Denboraldi ona egiten ari dira bi gazte hauek Fagorrek.

Datorren astean, Arantzazuko igoeran izango dira larunbatean. Igandean berriz, Mutrikun. JMA taldeko lehen maila

lako kadeteak, Urrietara joango dira igande arratsaldean. Bigarren mailakoak, berriz, Arrasaten arituko dira larunbat arratsaldean.

## FUTBOLA 6 eta 1 Atxabalpen




Esti Loitiren neskek

garaipena lortu zuten Kopako lehen partidaren kontra jokatuak norgehiagokan, futbol gutxi egiteko aukera izan zuten Estiren neskek. Hala ere, 6 eta 1 irabaztea lortu zuten. Datorren igandean, Añorgaren aurka arituko dira, goizeko 11:30etan. Igandekoa partida polita izango da arrasatearrentzat, Añorgatarrek mailari eustea lortu dutenez, ez dute ezer galtzeko eta.

Mondra taldeak, bestalde, sailkapeneko hirugarren postuan segitzen du. Joan den asteburuan, 1 eta 2ko garaipena lortu zuen Hondarribian. Datorren astean, Zestoaren aurka neurtuko ditu indarrak. Aurreko itzulian arrasatearrek 0 eta 2 irabazi zieten. Partida Atxabalpen jokatu da, arratsaldeko 16:30etan.

## SASKIBALOA Agur 2. mailari



Patronato taldearen

aurka aritu ziren Arrasateko saskibaloitako taldekoak, ligako azken partidaren. Arrasatearrek irabazteko gogoak izan zuten, baina bilbotarrek ligako garaileak direla erakutsi behar zuten, markagailuan 74-87 nagusi zirenean.

Datorren denboraldian maila nola berreskuratu hasi beharko dira lantzen.



# Xake taldea bigarren, Gipuzkoako txapelketan

Arrasateko San Andres Xake Taldea bigarren izan zen Gipuzkoako txapelketan. Bergararen aurka jokatu zuen azken partida eta garaipena lortu. Jose Manuel Hernando, Josu Tornay, Juan Carlos Mayo, Luis Angel Ortega eta Roberto Villarrek, Gipuzkoako preferente mailara igotea lortu dute garaipen honekin. Bost lagun hauek datorren urtean Gipuzkoako xake talde onenen aurka arituko dira.

Xake jokalaria hauek, Gipuzkoako eta Euskal Herriko xake jokalaria onenen artean daude. Luis Angel Ortega eta Josu Tornay esate baterako, 30 jokalaria onenen artean kokatzen dira. Ortegak 2.190 puntu ditu eta Tornayk, berriz, 2.140. San Andres Xake Taldeko hiru garren tokian dago Manuel Hernando, 2.060 punturekin. Josu Tornayk adierazi digunez, "arrasatearrek nahiko maila ona dute Gipuzkoan".



Joan den ostegunean ospatu zuten taldekideek txapelketan lortutakoa.

Tornay, Bartzelonakoa da eta Arrasatera etorri zenean, San Andresko xake taldekoen eskaintza izan zuen jokatzeke. Ortega ere, taldearen fitxajea da. Bera lasartearra da, baina gaur egun, Arrasaten bizi denez, San Andresko xake taldean ari da.

Bestalde, lehen mailan

jokatzen duten arrasatearrek mailari eustea lortu dute. Hori dela eta, hurrengo denboraldian, prefenten eta lehen mailan izango dira Arrasateko taldeak. Lehenengo taldekoak, azaroan hasiko den Gipuzkoako banakako txapelketan izango dira. Hantxe izango dira

Josu Tornay, Luis Angel Ortega eta Manuel Hernando taldekideak.

San Andres Xake Taldeak, hamalau urte darama xakean jokatzen. San Andresko Errebuelta kalean aritzen dira, astearte, asteazken eta ostiralean, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

## Andres Castillejo, Errealeko jokalaria

Hamalu urteko arrasatearra fitxatu du Errealak datorren denboraldirako. Mondrako haur mailako jokalaria honek bost urte daramatza futbolean jokatzen. Bere adineko gazte askok bezala, talde handietan jokatu nahiko luke. Dagoeneko lortu du Zubietan entrenatzea behintzat. Errealak urtero egiten duen probetan parte hartzeko hautatu zuten Andres. Berak dioenez, "ilusioa nuen arren, ez nuen uste hartuko nindutenik".

David Zaitegi eta Ramon Arkauzek entrenatzen duten mutil honek, erdiko atzelari moduan jokatzen du. Pikabea dauka gustuko jokalaria. Barçaren aurka jokatzea nahiko luke. Baina horrek, aurrezagoko kontuak izango dira Andresentzat.

Oraingoz, Mondrako taldearekin amaituko du denboraldia eta datorren urtean Gipuzkoako beste hainbat jokalarirekin arituko da Errealeko gazteen taldean.



Aretxabaletako Uda taldean ere jokatu zuen Andresek.

## Herensugeak eta Old Lyons

Arrasateko Herensugeak taldeko jokalaria ohiak, Bordeleko Old Lyons Errugbi taldeko jokalariren aurka arituko dira larunbatean. Old Lyons taldekoak, 1. mailan jokatzen duen Bordeleko Stade Bordelaise taldeko jokalaria ohiak osatzen dute. Neurketa Garaizako errugbi zelaian izango da, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Jaiak alde zaharrean jarraituko du 19:00etan.



**AGUSTIN UGARTE** (ARRASATEKO EAJko LEHENDAKARIA)

# “Beharrezkoa da hitz egitea”

**Agustin Ugarte Irunen jaio zen. Aspaldi bizi da gure artean eta erabat arrasatertuta dago. Dagoeneko lau aldiz izan da Arrasateko EAJko lehendakaria. Azkenengoz, orain dela gutxi aukeratu zuten.**

— **Irundik etorri zinenen, zer aurkitu zenuen Arrasaten?**

— 1968.urtean Arrasatera Ingeniaritza ikastera etorri nintzen. Hemen nire etorkizuna aurkitu nuen.

— **Nolakoak izan ziren irakasle lanetan ibili zinen urteak?**

— Ni eskolan 1972tik 1983ra ibili nintzen eta Arrasaten garai horretan gertaera sozial eta politikoak indar handiz bizi ziren.

1972tik 1975era bitarteko urteetan oso oroitzapen onak dauzkat. Euskaldunok helbu-

ru komunak genituen, politikoki Francoren diktaduratik ateratzen ari ginen eta sozialki euskararen aldeko borroka oso handia zen. Garai hartan, gaur ez bezala, herria elkar-turik zegoen.

— **Lehen Eskola Politeknikoa izan zen. Orain, berriz, Mondragon Unibertsitatea. Asko aldatu da?**

— Bai, nahiko, eta nire ustez aldaketa hobera izan da. Gaur Mondragon Unibertsitatean gorengo ikasketak egiteko aukera dago. Hala ere, badu alde negatiborik. Lehen zikloa zena (ofizialia, maestria...) alde batera utzi da eta gazte askok gorengo ikasketak egiteko arazoak dituzte, edo ez dute egiterik nahi. Hala ere, aldaketa hobera

izan dela esango nuke nik.

— **Nola eta noiz sartu zinen politikan?**

— Txiripaz. 1977-78.urteetan


politikoki definitu beharra nekala sentitu nuen eta nire pentsamendu politikoarekin bat zetorren alderdia EAJ zenez, EAJn afiliatzea erabaki nuen.

— **Zenbat aldiz izan zara Arrasateko Uri Buru Batzarreko lehendakari?**

— Lau aldiz.

— **Zeintzuk dira UBBko lehendakariaren betebeharrak?**

— Orokorrean, EAJ-ri dagokionez, Arrasaten egiten den politika zuzentzea eta udalbatzan dagoen zinegotzi taldeari laguntzea. Eskualdeko batzarrek eta nazionalak dituen



**“Arrasateko partidu politiko eta sindikatuekin ditugun harremanak oso puntualak eta eskasak izaten dira”**



# Euskal Herria baketzeko”

alderdia garenez gero, politikan sortzen diren ekimene-tan eta alderdiko barne prozesuetan parte hartu behar dugu. Honez gain, batzokia zuzendu behar dut.

— **Arrasateko jeltzaleen artean izan omen ziren eza-dostasunak Loitiren inguruan. Konpondu dira?**

— Arrasateko jeltzaleen artean ez zen ezadostasunik izan. Guk ere ez genuen sines-ten Loitiren alkatetza gerta zitekeenik. Denok ezagutzen ditugun gorabehera batzuen ondorioz suertatutako alkate-tza izan zen.

— **Arrasate istilutsuagoa da EAJK alkatetza hartu zuenetik?**

— EAJK alkatetza hartu zuenetik ez dut uste Arrasate istilutsuagoa denik. Iazko udaberrietik aurtengo udaberrira Euskal Herrian hainbat gerta-kizun gogor eman dira: Orte-

ga Lara Arrasaten agertu izana, Ermuko zinegotziaren hiltzea... Ideologia alde batera utziz, herri honetako pertsona askorentzat kolpe handia izan zen. Kanpoko faktoreak izan dira aldaketa bultzatu dutenak Arrasateko alkate-tzan. Beraz, ez dut uste Arrasate istilutsuagoa denik EAJK alkatetza hartu duenetik.

— **Pentsatu duzu inoiz zerrendaburu izatea?**

— Ez. Nik gauza bat argi daukat. Nire ustez Arrasateko alkatea arrasatearra izan behar da. Hogeita hamar urte

daramatzat Arrasaten eta oso integraturik nago, baina esan dudan bezala, alkatea arrasatearra izan behar da.

— **Nolako harremanak dituzu Arrasateko partidu politiko eta sindikatuekin?**

— Arrasateko partidu poli-tiko eta sindikatuekin dau-kagun harremanak oso pun-tualak eta eskaxak izaten dira. Udalbatzako zinegotzien arte-an ditugunetara mugatuko nituzke.

— **Zer iritzi duzu sozia-**

**listek egin berri dituzten bar-ne hauteskunderi buruz?**

— Hori alderdi baten bar-ne arazoa da. Agian hainbat karguren aukeratzea demo-kratizatzea izango litzateke, baina esan dudan bezala, alder-di baten barne arazoa da eta honen inguruan iritzia ematea zaila da. EAJK adibidez, bar-ne eta kanpoko karguak guz-tiz bereiztuak ditu. Batera-ezinak dira.

— **Zer egingo zenuke Eus-kalerria baketzeko?**

— Beharrezkoa da hitz egitea. 1978. urtean pauso garrantzitsua eman zen, bai-na aldaketa onartu ez zuten per-sonak eta taldeak egon ziren. Nahi genuen guztia ez genuen lortu, baina fase bat bete zen. Gaur egun, orain dela hoge-i urte bezala gaude. Nire ustez, bidea izan daiteke inposizio-rik gabeko negoziazioa. Alde guztiek eman beharko dute amore honetan edo hartan. ■

“Inoiz ez dut pentsatu zerrendaburu izatea Mondragoen. Nik gauza bat argi daukat: Arrasateko alkatea arrasatearra izan behar da.”

## ETEO

### ERDI MAILAKO IKASKETEN HEZIKETARAKO ESKAINTZA (98-99 IKASTURTEA)

• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA (G.G.Z.B.)

• HEZIKETA ZIKLOAK:

- Gestio administratiboa (Erdiko Maila)
- Idazkaritza (Goi Maila)
- Programa Informatikoen Garapena (Goi Maila)
- Administrazioa eta Finantzak (Goi Maila)
- Nazioarteko Merkataritza (Goi Maila)

**AURREMatrikulatze EPEAK:**

- **Batxilergo** eta **Erdi Mailako** Heziketa Zikloak: Maiatzaren 4tik 16ra arte
- **Goi Mailako** Heziketa Zikloak: Ekainaren 19ra arte

Larraña, 33 • OÑATI  
Tel.: 943 - 71 80 09 • Faxe: 943 - 71 81 62




# Sexualitateari buruzko zine zikloa maiatza eta ekainerako

Sexuaren inguruan gauregun, oraindik, zalantza eta kezka dexente dago. Sarri ez da naturaltasunez hitz egiten gai honen inguruan, eta hortik datoz sexuaren inguruko tabuak eta beldurrak. Misterioz betetako mundua izaten da maiz sexua.

Gai honen inguruan heziketa eta aholkularitza emateko, Sexualitate Bulegoa ireki zen duela bi urte Arrasaten. Bi sexologok sexuari lotuta dagoen edozein gairen inguruan aholkuak eta laguntza eskaintzen dituzte astearte eta ostegunetan Garibai Etxean. Herritar guztiei dago zuzendua, baina gazteei eta emakumei bereziki.

Ikastetxeetan hitzaldiak, kafe tertuliak, erakusketak... gauza ugari antolatzen ditu Sexualitate Bulegoak, dena helburu batekin: sexuaren inguruan sentsibilizazioa piztea eta berdintasunean eta naturaltasunez hezitzea.

Oraingoan Sexualitatea-



Sexu harremanak bizitzeko modu ezberdinak ikusiko dira lau filmetan.

ri Buruzko Zine Zikloa antolatatu dute. Zinea tresna hartuz, sexualitatea landuko da. Oste-

gunero, lau asteren buruan, gaueko bederatzi t'erdietan izango da Amaia Antzokian.

Sexuari lotuta dauden lau film eta lau egoera, sexu harremanak ezberdinak direla eta ezberdin bizi daitezkeela ikusteko.

Lehenengo filma "Beautiful Thing" da, harreman homosexuali buruzko hausnarketeta. Bigarren astean gizon heldu bat eta neska gazte baten arteko maitasun historia liluragarria eta hunkigarria izango da, nola ez Adrian Lyne-ren "Lolita". Gazteek zer pentsatzen duten eta euren paranoiak "Amy-ren atzetik" filman ikusiko da. Azkena pornografiarekin lotuta dago. Pornografiaren inguruan dagoen hipokresia jorratzen du "Larry Flynt-en eskandalua" filmak. Film hau Milos Forman zuzendari ospetsuak zuzendu zuen.

Jendeak Amaia Antzokitik irtetean filmetako istorioei buruz pentsatu eta hausnartzten badu, lortuko da Sexualitate Bulegoak duen helburua. Sexua mila modutan bizi daitezkeela onartzea, alegia.

## Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 79 52 50

## beatriz

oinetakoak  
eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE


## GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

## ESKER ONA



1998ko apirilaren 29an hil zen **Julian Aranzabalen** familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, eta hileta elizkizunetara agertu izana.



OLGA JAUREGI, GEOLOGIAN ETA HISTORIAN LIZENTZIATUA

## 120 milioi urteko bidaiaria atzera dinosauruen erakusketan

Duela 120 milioi urte Udalatx eta Anboto koralezko arrezifeak ziren, Euskal Herria itsaso tropikal eta epel baten azpian murgildurik zegoen, eta kostaldean dinosauruek paseatzen zuten. Hau guztia Monterron Liburute-giko "Euskal Herria eta dinosauruak" Aranzadi Zientzi Elkarteak egin duen erakusketan dago ikusgai. Olga Jauregi, geologoa da arduraduna.

— Zer ikasiko dugu erakusketara joanez gero?

— Helburua da planeta osoa dinosauruen menpe zegoenean gure lurra zuen itxuraren alderdi ezezaguna erakustea. Duela 120 milioi urte Euskal Herria ur azpian zegoen eta kostaldea ez zen gaur egungo Zarautz edo Orio. Kostaldea Errioxan hasten zen eta hantxe zeuden dinosauruak. Gure lurretan ze landare, animalia eta klima zegoen erakutsi nahi izan du Aranzadi Elkarteak erakusketa honetan. Hogei urtean bi paleontologok egindako ikerketen emaitzak jasotzen dira. Jose Angel Torres eta Luis Ignacio Viera paleontologoek ikerketa garrantzitsuak egin dituzte.

— Nolako zen Euskal Herria orain 120 milioi urte?

— Ia osorik itsaso tropikal eta epel baten azpian murgildurik zegoen. Horregatik Anboto edo Udalatxen samurra da fosilak, barraskiloak edo almejak aurkitzea, mendiak lehen arrezifeak ziren eta. Bahamak edo Bermudak bezalako tokietako itsaso eta klima zegoen Euskal Herrian. Landare-tza oso oparoa zen, palmondo erraldoiak eta hogeit metro luze ziren zuhaitzak aurki zitezkeen. Erabat bestelakoa.



— Arrasaten bizi izan zen dinosauririk?

— Dinosauruak kostaldean bizi ziren, eta orduko kosta Errioxan zegoen. Han lau dinosauru mota ezberdinen aztarnak aurkitu dira. Bi haragijaleak dira eta besteak belarjaleak. Beren oinatzak, hezurak eta habiak arrautza eta guzti ikus daitezke erakusketan.

— Steven Spielbergen *Parque Jurásico* filmean ikusten diren parajeen antzekoa zen Euskal Herria?

— Beno, berdina ez, baina antzekoa. Ideia bat egiteko balio du filmak.

— Ikusteko zer dago?

— Dinosauruak nolakoak izango ziren berregina dira, eta Errioxa aldean aurkitutako hainbat aztarna daude. Inguruko mendietan topatutako fosilak ere badaude. Argazkiekin lurra lehen nolako zen erakutsi nahi izan dugu.

### aste gazte

#### ■ LANA

• Basoetako ingeniari teknikoen lan poltsa osatzeko deialdia. Epea: maiatzak 11.

• Aukea Kirol Erakundeak, igerilekurako soroslea, atezaina eta arropazaina behar ditu. Epea: maiatzak 12.

• Txatxilipurdik, uztaile-rako begiraleak behar ditu. Epea: maiatzak 13.

• Nafarroako Erkidegoak, musika, haur hezkuntza, entzumen eta hizkuntza, euskara, ingeles, hezkuntza fisikoa eta pedagogia espezialitateko maisu-maistrak behar ditu, beti ere euskaraz lan egiteko. Epea: maiatzak 17.

• Euskadiko Orkestra Sinfonikorako musikariak behar dira: perkusioa, bibolina eta biolontxelo musikariak hain zuzen ere. Epea: maiatzak 25. • Nafarroako Komunitateak, psikomotrizistak behar ditu. Epea: maiatzak 27.

#### ■ BEKAK

• CSICek fisika, biologia, geologia eta matematikan lizentziatuentzako diru laguntzak ditu, Madrilgo biologia, fauna, naturaren historia, ekologia, geologia e.a. aztertze-ko. Epea: maiatzak 17.

#### ■ AUZOLANDEGIAK ATZERRIAN

• SCI-nazioarteko zerbitzu zibilak koordinatzen dituen auzolandegietan parte hartze-ko izenemateko epea zabalik dago.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 77 00 65

“Euskal Herria itsaso epel eta tropikal baten azpian murgildurik zegoen”



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Santa Teresa kalean. 5. solairuan dago. 69 m<sup>2</sup>. Tel.: 79 09 48

• Zarautzen etxebizitza salgai. 2 logela, egongela, sukalde, komuna, trastelekua eta garajea. Prezio onean. Tel.: 83 54 46.

### 2. Erosi

• Arrasateko erdialdean igogailua duen etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 77 02 79.

### 3. Errentan emateko

• Bizkaia etorbidean etxebizitza alokatzen da. Hiru logela, Bi komun. Guztiz jantzia. Kanpo aldera ematen du. Tel.: 945 17 44 53.

• Etxebizitza alokatzen da Aramaio erdialdean. Jantzia eta berogailuaz. Tel.: 79 60 88.

### 4. Errentan hartzeko

• Gela baten bila nabil Arrasaten. Tel.: 94-41 62 675. Inigoz galdetu.

• Bi logelako etxebizitza hartuko genuke alokairuan, Arrasaten. Tel.: 939 57 45 31 (Nekane, Unai).

### 5. Etxe konpartituak

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Logela aparte izango du. Interesatua baldin bazaude, etorri ikustera: Bañez doktorea, 2. 3. ezkerrean.

• Gela bat alokatzen da San Andresko etxebizitza batean. Uztailaren erdialdera arte. Tel.: 79 98 70. (Txema).

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Bañez Doktorea kalean garajea salgai. Prezio ona. Tel.: 79 93 91. Jose Mari.

• Garajea salgai Roneoko etxeetan. 1. solairuan, garaje itxia. Tel.: 79 18 70

• Olarte kalean garaje itxia salgai. Tabako dendaren azpian. Tel.: 79 91 52.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

Arrasate Press • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

### 9. Errentan emateko

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

Errentagarria da. Tel.: 79 96 39.

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek lokal bat errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

• Ileaipaindegia saltzen da. Sta. Mari-na, 14 behean. Tel.: 79 73 43.

### 14. Errentan emateko

• Ibañe ileapaindegia lokala alokatzen du Estetizien batentzat. Ileaipaindegia Makatzenan dago, 10. zenbakian. Tel.: 76 69 15.

• Taberna eskuz aldatzen da. Tel.: 77 14 93.

• San Andres auzoan dagoen den-dajabaz aldatu edo saldu egingo da.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Neska batek etxeko lanak eta umeak zainduko lituzke. Tel.: 78 33 15.

• Esperientziadun klinika laguntzailerak pertsona helduak zainduko lituzke, etxeetan edo ospitaleetan, gauzez ere bai. Tel.: 79 34 09. Amaia.

• Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta ume bat zaintzeko. Tel.: 76 11 57.

• Emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 02 81.

• Esperientziadun neska prest gozetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 97 81.

• Emakume prest etxeko lanak egin

eta umeak nahiz nagusiak zaintzeko. Arratsalde. Tel.: 79 07 73.

• Etxeko lanak egin edo pertsona helduak zainduko nituzke. Tel.: 79 47 29. (12:00etatik 15:00etara).

### 18. Eskaerak

• Zarugalde kaleko 50ean 20-45 urte arteko emakumea behar da dendan lan egiteko. Interesatuak iluntzeko 19:00etatik 20:00etara pasatu bertatik. Tel.: 77 13 91

• Lagun euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 56 30. Gauzez deitu.

• Ile apaindegi batek eskuko ile lehor-gailua ondo erabiltzen dakien ile apaintzailea behar du. Tel.: 79 03 63.

• Neska bat behar da jatetxe batean zerbitzari lanak egiteko. Kontrata egingo zaio. Tel.: 945 44 50 95.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. Tel.: 77 04 27. Gauzez deitu.

• Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 04 61.

### 19. Denetarik

• Suitzara *au pair* joateko neska bat behar da. Frantses apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Enkarguzko margolanak (kuadroak) egiten ditut. Informazio gehiago 77 01 07 telefonora deituta. Ana.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• DBH eta LOGSEko eskolak ematen dira. Talde txikiak eta irakasle esperientziadunak. Tel.: 79 56 78.

• Edozein lehiaketatan parte hartu edo Zuzenbideko ezaguera praktikoa izan nahi duten lizentziatuei (edo azken urteko karrerako ikasleei) zuzendutako praktikak eskaintzen dira. Tel.: 79 13 09 (13:00etatik 14:00etara).

### 21. Eskaerak

• 2. LOGSEko ikasle bati matematika eskolak emateko irakaslea behar dugu. Tel.: 79 44 11. Anastasio edo Pura.

• LOGSEko 1. mailako ikasle batek



matematikako eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 68 84.

• Fisika, kimika eta matamatikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 79 87 19. Leire. 16:00etatik 18:00etara edo 20:00etatik 22:00etara.

• Biologiako ikasleak matamatika eskolak behar ditu. Tel.: 79 42 64.(Gauko 22:00etatik aurrera).

**MOTORRA**

**23. Saldu**

• Furgoneta salgai. Ford Transit 2500 turbo diesel eta karrozatua. 3 urtekoa. Tel.: 71 44 16

• Renault 21 TXE salgai, egoera onean. 350.000 pta. Tel.: 79 43 49 eta 907 48 06 99. Ander.

• Motorra salgai. Montesa kota 314 Trial. Urarekin hoztua. Tel.: 77 07 74 lan orduetan eta 77 09 27 gauean.

• Kart konpetizion pieza askorekin salgai. Tel.: 77 07 74 lan orduetan eta 77 09 27 gauean.

• 205 GTX SS-Y autoa salgai dago. Egoera onean. Tel.: 79 68 63.

• Karabana bat salgai dago. Adria Prima 4,10 m.koa. Merkea. Tel.: 79 18 22.

• Citroën C-15 RE Club salgai. SS-AL. 78.000 Km. 650.000 Pts. Tel.: 77 07 42.

• Cady motorra salgai, egoera onean. Prezioa ere ona. Tel.: 907 - 94 06 67.

• Motorra salgai. Yamaha especial 250. Oso egoera onean. Tel.: 77 05 14. Asier.

• Nissan Terrano edo Ford Maverick autoen Ilanta orijinalak salgai. Laurak 15.000 pta. Tel.: 79 46 58. Maider.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Macintosh ordenadorea salgai. Centris 650 modelo. 12 mega RAM. 80 megako disko gogorra. 7.1. Sistema. Tel.: 79 97 60.

• Josteko eta zig-zag egiteko Sigma makina industrialak salgai. Tel.: 79 42 70.

• Pit-bull txakurkumeak salgai. Pan-

txo eta Patrick odolokoak. Txakurkume marroiak Rednoserekin eta tigre era-koak zuriarekin. Prezio interesgarria. Deitu gaueko 21:00etatik aurrera. Tel.: 943 79 37 17.

• Piragua salgai. Invader Light motakoa. Estalkia, arrauna eta salba-jantziaz. Dei egin 79 71 44 telefonora, eta Albertoz galdetu.

• Bizikleta salgai. 54 neurriduna. Orbea Ziroko modelo. Tel.: 79 77 54. Dani.

• Autoaren barruan eramateko ume-en aukia salgai. Tel.: 79 44 14. Lane-gunetan 19:00etik aurrera; asteburuetan eguerdietan.

• Soinua salgai. Berria. Dimai markakoa eta tekladuna. Tel.: 79 86 59.

**27. Erosi**

• Bigarren eskuko kafe errotaxoa erosiko nuke. Tel.: 79 23 58.

• Ehiza txakurrak eramateko bigarren eskuko eskorga merkea erosiko nuke. Tel.: 78 34 64. Migel Angel.

**29. Eman**

• Bost hileko txakur mestizoa oparituko nuke, ondo zaintzekotan. Tel.: 79 90 46.

• 1,50 m. dituen bi ateko hozkailua oparitzen da. Tel.: 79 95 83.

**31. Galdu**

• Belarritakoa galdu nuen joan den larunbat arratsaldean, Otalora kalean. Tel.: 79 95 48.

• "Agus 14 - 2 - 95" idatzia daraman erlojua galdu dut San Andresen. Tel.: 79 79 92 edo 79 86 34.

• Urrezko kataia galdu dut. Aurre aldean S. A. siglak daramatza eta atzealdean odol taldea. Tel.: 79 96 37.

• Pepe jeans markako jaka beig panaduna galdu da. Aurkitu duenak, mese-dez deitu. Tel.: 79 01 59.

**37. Bestelakoak**

• Irrati programa baterako, munduan zehar ibili den jendearekin harremanetan jarri nahi dugu. Arrasate Irratiko telefono hauetara deitu: 79 58 40 (erantzungailua) edo 79 58 77.

• Artzain txakur aleman emea bilatzen ari naiz, nirearekin emaltzeko. Nirea artzain txakur aleman-altsaziarra da. Tel.: 79 03 37 edo 79 36 12.

*Ametsa... laster*

**AEDren XV. urteurreneko festa**

**Zure laguntza behar dugu jaia aurrera eramanez ahal izateko.**

**Jaia maiatzaren 23an eta 24an izango da.**


*Eman izena AEDn*

(Pablo Uranga, 4 behea) Tel.: 71 21 17 / 77 12 28

**MILA ESKER ARRASATE!!!**







# LASAGABASTER

AUKERARIK ONENA



**DOCKERS®**

pants by  
Levi Strauss & Co.





Klaudio Landa eta Yolanda Alzola Kaleidoskopia saiora etorriko dira astearte gauean.

# Kaleidoskopia saioa eta mahai ingurua aste honetan ATBn

Euskadi Gazteako jarraitzaile direnek ezagutuko dituzte Klaudio Landaren adar jotzeak eta txantxak. Klaudio *Prime Time* saioan jendearekin brometan aritzen da egunero telefonoz. Oraingoan, baliteke bere txanda izatea, eta Klaudio estu eta larri ibiltzea *Kaleidoskopia* saioan. Harekin

batera izango da Euskal Telebistako *Lo que Faltaba* programako aurkezlea den Yolanda Alzola.

Bi esatariak astearte gauean *Kaleidoskopia*an elkarriketatuko dituzte Aitziber Langaranek eta Unai Iparagirrek.

Asteazkenean, berriz, gaueko 21:00etan Eibar-Gas-

teiz autobideak gizartean sortu dituen gorabeherak mintzagai izango dituzte Mikel Irizarrek zuzenduko duen saioan. Mahai inguruan Juan Antonio Urdangarin, Arrasateko Udaleko arkitektoa, Aitor Iturriaga, IGPtako partaidea eta Eusebio Villar, Leintz-Gatzaga proiektuko kidea izango dira.

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 9	ASTELEHENA, 11	ASTEARTEA, 12	ASTEAZKENA, 13	OSTEGUNA, 14	OSTIRALA, 15
Asteazken zehar eskainitako programa interesgarrien errepika.	13:30 <b>Astebete.</b> (Errepika)	13:30 <b>Mondrasport.</b> (Errepika)	13:30 <b>Kaleidoskopia.</b> (Errepika)	13:30 <b>Mahaingurua.</b> (Errepika)	13:30 <b>Kukaratxa Motel.</b> Unai Iparagirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.
13:30 Lotsa Barik	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	19:15 <b>Kukaratxa Motel.</b> Unai Iparagirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxoentzako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>
14:15 <b>Astebete</b>	21:30 <b>Mondrasport.</b> Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak... eta lehiaketa astelehenero.	21:30 <b>Kaleidoskopia.</b> Magazine kulturala.	21:00 <b>Mahaingurua.</b> Eibar-Gasteiz autobidearen inguruan. Mikel Irizarrek zuzenduko du.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	21:30 <b>Astebete</b>
14:45 <b>Munduari Buel-taka</b>				21:30 <b>Kukaratxa Motel.</b>	

## Arrasate Irratia 107.7 FM

### LARUNBATA

9:00 **Egunaren harian.** (albistegia)  
9:30 **Musika**  
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte, Garbiñe Perez eta Belen Aranbarrekin.  
11:00-12:00 **Zoroklasikoak.** Musika klasikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaizola eta Eusebio Iñarrarekin.  
12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

### ASTELEHENA-OSTIRALA

#### GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Egunaren harian.** (albistegia)  
9:30-11:00 **Goizoro.**  
11:00-13:00 Gaueko programen errepikapena.  
13:00-14:00 **Goizak gaur.** (Euskadi Irratia).  
14:30-16:00 **Bixau** orduan

### GAUEZ

#### Astelehena

20:30-21:00 **Almeneko saioa.**  
21:00-22:00 **Jokoz kanpo.** Kiroiak, Gorka Etxabe, Belen Carenas eta Rafa Mungiarekin.  
22:00-23:00 **Soloiko Solo.**

#### Asteartea

20:30-21:00 **Almeneko saioa**  
21:00-22:00 **Hitza ta Ekintza.**  
22:00-23:00 **Euskal Festa.** Goizane Arana, Maider Errarte, Dabid Iglesias eta Garbiñe Perezekin.

#### Asteazkena

20:30-21:00 **Almeneko saioa.**  
21:00-22:00 **Musika**  
22:00-23:00 **KK2A.**

#### Osteguna

20:30-21:00 **Almeneko saioa**  
21:00-22:00 **Kaleko Hautsak astinduz.**  
22:00-23:00 **Kutrelax.** Belen Carenas eta Kaittin Allenderekkin.

#### Ostirala

20:30-21:00 **Planning Prest.**  
21:00-22:00 **Music Box.**  
22:00-23:00 **Txerrendantza**  
23:00-24:00 **Draxtor.** Makina musika.





**O**rain dela hogeita hamabost urte, Lourdes Egidazuren urtebetetzea ospatzera bildu ziren bere lagunak.

Mendiak lorategietan bildu ziren dotore-dotore apain-

duta, argazkian ikusten den bezala.

Ezkerretik eskuinera zutik, Lurdes Amozarrain, Lourdes Egidazu, Arantza Amozarrain eta Begoña Amozarrain (apur bat makurtuta).

Erdian belauniko, Itziar Lamarain, Felisa Calleja, Mari

Karmen Otadui eta Maria Jesus Bidaburu.

Lurrean eserita, Narci (gasolindegiko Juanitaren iloba), Esther del Valle eta Mari Nieves Uranga (neskatila) eta Mari Asun Elgoibar agertzen dira.

1963ko maiatzaren 5ean

atera zuten argazkia. Lourdesek egun ahaztezina izan zuen dudarik gabe. Eta bestela begiratu zein ondo atera ziren guztiak Venustiano Urangak aterako erretratoan.

-----  
 Argazkilaria: Venustiano Uranga  
 Berriemailea: Tere Egidazu

**PEUGEOT**  
 Salmenta eta zerbitzua

**IBABE  
 GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
 Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**UGARTE**

Industria hornidurak

Arrasate pasealekua  
 Tel.: 79 83 96 / 79 23 00  
 Faxa: 793412

**Monte  
 taberna**

Maalako arrabala, 11  
 Tel.: 79 20 56



## L.O.G.S.E BATXILERGOAK

Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa  
Natur eta Osasun-Zientzien Batxilergoa.

## HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi mailakoa:

ERIZAIN-TZA-ZAINKETA AUXILIARRETA  
TEKNIKARIA (1.400 ordu praktika eta guzti)

Goi mailakoa:

INGURUGIRO-KIMIKA (1.400 ordu praktikak barne)



**Aurreinskripzioa: maiatzaren 4tik 18ra.**

Idazkaritzako ordutegia: 09:00etatik 13:00etara eta  
15:00etatik 18:00etara.

e-mail: [info.svi@educanet.net](mailto:info.svi@educanet.net)

<http://www.educanet.net>

Tel.: 79 04 11 • Faxa: 77 00 73

Harremanetan jartzeko: Idoia Urrutia/Blanca Martínez.

# ZURE ETORKIZUNA

# AUKERATU





a, eme...  
interiores



Garibai, 9  
20.500 ARRASATE  
(GIPIZKOA)  
Tel.: 79 15 03  
Telefax: 79 14 89

**a, eme... interiores**



**DESKONTUAK**

**%20**

**%30**

**%50**

**Altzari  
erakusketak  
aldatzen ari gara**



**grupo**



**Amuebladora  
Mondragonesa**

etxeko ekipamendu osoa